

GALERNA FUERTE. 13 DE MAYO

Durante el día 13 de mayo se abate una galerna sobre las costas del País Vasco, registrándose rachas máximas de viento cercanas o superiores a 130 km/h, acompañadas de un importante descenso de temperatura de más de 10 °C en pocos minutos. Se trata de una galerna de tipo frontal y se clasifica como galerna fuerte ya que los vientos originados superan, en valor medio, los 70 km/h y las rachas, los 90 km/h. Esta galerna se traslada hacia el este a lo largo de la costa detectándose primeramente en Punta Galea, alcanzando Jaizkibel 50 minutos más tarde.

Durante este episodio, varias personas resultaron heridas en diferentes puntos del País Vasco, es de destacar la desaparición del ocupante de un velero en la bahía de Txingudi. Se produjeron numerosos accidentes, especialmente por caída de árboles y ramas sobre calles y carreteras, así como por caída de cristales y tejas. El aeropuerto de Hondarribia registró cancelaciones de vuelos y se produjeron algunos apagones de luz en Gipuzkoa. En el interior de Bizkaia y Gipuzkoa los efectos de la galerna son muy inferiores, mientras que en Álava no se llega a notar su paso.

El disparo de la galerna, que se inicia en la costa asturiana, está condicionado, por un lado, por la existencia de un frente frío atravesando el Cantábrico (ver figuras 3.1 y 3.2) y, por otro lado, por la diferencia de temperatura existente entre la masa oceánica, fría y húmeda, situada sobre el cantábrico occidental y la masa de aire cálido, provocada por vientos del sur sobre el cantábrico oriental (ver figura 3.3).

A las 13:30 UTC la galerna llega a Punta Galea (ver figura 3.4) registrándose un brusco aumento, en diez minutos, de las rachas del viento; se pasa de 45,4 km/h hasta una velocidad máxima de 128 km/h. La velocidad media en los primeros 10 minutos es de 90 km/h. Simultáneamente, se produce un descenso de temperatura y un aumento de la humedad y de la presión. La galerna llega a las 14:10 UTC a Iurreta con 93 km/h de velocidad, a las 14:20 UTC a Zarautz con 118 km/h (ver figura 3.5) y a las 14:30 UTC a Jaizkibel con 117 km/h (ver figura 3.6). Los descensos térmicos provocados por la galerna son bruscos. Destaca el ocurrido en Zarautz; en tan sólo 10 minutos los termómetros descienden 9,8 °C, y en 20 minutos, 13,4 °C.

ENBATA GOGORRA. MAIATZAREN 13AN

Maiatzaren 13an enbatak gogor jo zuen Euskal Autonomia Erkidegoko kostaldean: 130 km/h inguruko haize-boladak eta are zakarragoak ere nozitu ziren, eta tenperaturak, minutu gutxi batzuetan, 10 °C baino gehiago erori zen. Fronte erako enbata izan zen, enbata gogor gisa sailkatzen den horietakoa, batez besteko abiadurak 70 km/h gainditu baitzuen, eta haizekadek 90 km/h. Enbatak mendebaletik ekialderantz jo zuen itsasertzaren parean; lehendabizi Punta Galea inguruan nabarmendu zen eta 50 minutu beranduago Jaizkibel erdietsi zuen.

Maiatzaren 13ko enbata horren ondorioz, hainbat pertsonak min hartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait lekutan, eta aipatzekoa da, gainera, Txingudin belauntzi batean zihoan laguna galdu egin zela. Istripu anitz izan zen; batez ere kale eta errepideetan zuhaitzak eta adarrak, eta kristalak eta teilak erori zirelako. Hondarribiko aireportuan hegaldiak bertan behera utzi beharrean gertatu ziren, eta Gipuzkoako zenbait aldetan argia joanda egon ziren. Bizkaia eta Gipuzkoa barrualdean, enbataren ondorioak askoz ere txikiagoak izan ziren, eta Araban, berriz, ia ez zuten sumatu ere egin.

Enbata Asturiasko kostaldean sortu zen, alde batetik, Kantauri itsasoa zeharkatzen ari zen fronte hotz batek (ikus 3.1 eta 3.2 irudiak), eta, bestetik, Kantauri mendebaldeko masa ozeaniko hotz hezearen eta Kantauri ekialdean jotzen zuen hego-haize beroaren arteko tenperatura kontrasteak eraginda (ikus 3.3 irudia).

Denbora Unibertsal Koordinatuko (UTC) 13:30etan Punta Galeara heldu zen enbata (ikus 3.4 irudia), eta, hamar minutuan, haize-boladak ikaragarri zakartu ziren; 45,4 km/h-tik 128 km/h-ko abiadura maximora igaro ziren. Lehenengo 10 minutuko tartean batez besteko abiadura 90 km/h-koa da. Aldi berean, tenperaturak behera egin zuen, eta hezetasuna eta presioa igo egin ziren. UTC 14:10etan lurretara iritsi zen, 93 km/h-ko abiaduran, UTC 14:20etan Zarautza, 118 km/h-ko abiaduran (ikus 3.5 irudia) eta UTC 14:30etan Jaizkibela, 117 km/h-ko abiaduran (ikus 3.6 irudia). Enbatak tenperaturaren beherakada zakarra eragin zuen. Zarautzen gertatutakoa aipatzeko modukoa da, 10 minutuan, termometroek 9,8 °C egin baitzuten behera, eta 20 minutuan, 13,4 °C.




Figura 3.1. Presión en superficie. 13/05/2002 a las 12 UTC.
3.1. irudia. Presioa azalean. 2002/05/13, 12etan UTC.




Figura 3.2. Presión en superficie. 13/05/2002 a las 18 UTC.
3.2. irudia. Presioa azalean. 2002/05/13, 18etan UTC.




Figura 3.3. Geopotencial e isotermas a 850 hPa. 13/05/2002 a las 12 UTC.

3.3. irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-etara. 2002/05/13 12etan UTC.




Figura 3.4. Presión, temperatura y velocidad del viento en Punta Galea del 12 al 14/05/2002.

3.4 irudia. Presioa, temperatura eta haize-abiadura. Punta Galea, 2002/05/12tik 14ra.




Figura 3.5. Temperatura y velocidad del viento en Zarautz del 12 al 14/05/2002.

3.5 irudia. Temperatura eta haizearen abiadura. Zarautz, 2002/05/12tik 14ra.




Figura 3.6. Temperatura y velocidad del viento en Jaizkibel del 12 al 14/05/2002.

3.6 irudia. Tenperatura eta haize-abiadura. Jaizkibel, 2002/05/12tik 14ra.